

MUNDUCO LANYERAC.

YESUS LAGUN.

Bere airca.

IXASOAREN pareco
Mundu hau salbamenduco ;
Chume handiac,
Garen guciac
Exaiarekin guduca
Hari, beldurric, borroca.

Untziac tempestec nola,
Satanec arimac hala
Ditu tentatzen,
Ditu behartzen,
Nahiz ikhusi galduac
Cerurat gure oihuac.

Norc ikhusi hulacoric
Exai nabarben gaichtoric?
Nihoiz bakeric,
Nihoiz pausuric ;
Bethi behartzen gaituzte :
Çato, Yesus, altcha çaitc.

Hel, Yesus, hel çakizkigu,
Çure beharra badugu.
Hau da çoria !
Oi cer furia !
Galtzeco tracac ditugu ;
Hel, Yesus, hel çakizkigu.

Hel çaitcztela, ez loxa ;
Ene ganat çuen boça,
Çuen nigarrac,
Oihu suharrac

Aditzen ditut cerutic :
Arren beira loxatzetic.

Nic ichuri sarraskiac,
Ene laguntzen bahiac,
Haragui, mundu,
Satan, ifernu
Gucien dire garhaiac
Sarraski nic ichuriac.

Sinhex-açue eguia
Ene ahotic ilkhia ;
Ukho beldurric
Ez har nitatic,
Ez banauçue ukhatzen,
Ez eta ere ahantzten.

Egon zaitezte enekin,
Nagon ni ere çuekin ;
Enekin yuntki
Dagona finki
Daite goçoki hacia,
Ceruracotz berecia.

Ceru, lurreco goçoac
Ez berdin goçatzecoac ;
Hauc cein galkhorrac.
Hec irauncorrac !

Orai cer dio gogoac ?
Hauta, hauta cerucoac.

Tratantec, aberaxteco,
Guerlariec, bentzutzeco,

Laceriari,
Herioari
Desafioac ematen ;
Hox, christauac, erna gaiten.

Osoki dire handiac
Guretzat dauden sariac ;
Gudu hautaric
Atheraturic,
Ceruco goço guciac,
Jesus onac mereciac.

Gduca beraz, gduca,

Herioraino gduca ;
Balentriosen,
Bitoriosen
Prest-presta dauzca khoroac
Yaungoico soberanoac.

Mihia aho gangari
Yosia, heçur gainari
Gueldi bethicotz,
Çu ahantztecotz !
Goico-Yaunaren egoitza,
Çutan da ene bihotza.

BEKHATOREA ITZULTZEN DA YAINCOA GANAT.

Aire hunen gainean : *Orhoit hadi, bekhatorea.*

Ah! mundu enganagarria,
Yakin banerauc berria!
Hire aguintza falxoac
Cein diren ondicozcoac
Ah! orai diat ikhusten ;
Ikhustez nauc hiratzen.

Hire lausengu ederrez,
Hire axeguin galkhorrez,
Oi hau da bada lastima!
Certara dudan arima!
Huna non dudan galdua,
Bekhâtutan hondatua.

Nor darotçudan preçatu!
Nor dudan nausitzat hartu!
Ukho eguinan çuri,
Oi, Yauna,, cer ikhusgarri !
Ene çorigaitz handitan,
Nago Satanen gathetan.

Hain churi nola elhurra,
Hain eder nola içarra
Nuen arima gaichoa.
Helas! hau da gambioa!
Kheldarra baino beltzago
Bakhatuz eguina nago.

Ceruan guehiagoric
Enetzat ez da çucenic,
Non ez ditudan higuintzen,
Hoben guciac borratzen,
Penitentzia eguinez
Heiagoretan, nigarrez.

Alki sainduco oihuez,
Predicarien erranez
Çu ganat, Yauna, deithua,
Amulxuki hertchatua ;
Heda besoa cerutic,
Heldu natzaitçu gogotic.

Ni naicen beçalacoric
Norc ikhusi prodigoric?
Harc primantza lurrecoa,
Nic primantza cerucoa
Biec ditugu chahutu;
Cembatez dudan garhaitu.

Ah! prodigoa beharrez,
Hurren hila cen gosetez :
Ordu onean etcherat,
Aitaren besoetarat
Itzuli baitzen suharki,
Aitac hartu, cein arraiki!

Norc egundaino bestaric
Ikhusi hunelacoric!
Besoz beso besarketan,
Egonican nigarretan,
Aitac Semea aldean
Emana mahain onean.

Animo, bekhatoreac,
Ceruco Aita gureac,
Osoki combertituric,
Bekhatuac barkhaturic,
Gaitu haur maiten baltzarat
Hartuco bere alderat.

BERTHUTE PRINTZIPALEN ACTAC.

Aire huntan : *Oi! Bettleem.*

Fedezco Acta.

Sinhexten dut,
Eliçac dagozan eguiac
Sinhexten dut
Hala direla guciac.
Neronec ikhusiric baino
Harc erranic segurkiago
Sinhexten dut.

Ezperantzazco Acta.

Yauna baithan
Eman dut ene fidantzia,
Yauna baithan;
Haren misericordian
Ediren uste dut bicia,
Eta salbatzeco gracia
Yauna baithan.

Amodiozco Acta.

Bihotzetic
Maithatu nahi çaitut, Yauna,
Bihotzetic
Eta gucien gainetic,
Ceren baitzare guciz ona :
Maite dut halaber laguna
Bihotzetic.

Adoracionezco Acta.

Çu bakharric
Ene Yabe soberanotzat
Çu bakharric
Gucien creatzailletzat
Nahi çaitut nic eçagutu,
Yauna, eguiaz aduratu
Çu bakharric.

Contricionezco Acta.

Urriki dut
 Eguin dudan gaichtakeriaz,
 Urriki dut
 Hobendun naicen guciaz
 Bihur daçu, Yauna, bicia,
 Eguidaçu, othoi, gracia;
 Urriki dut.

Humiltasunezco Acta.

Ni ez deusa,
 Içaite soberanoari
 Ni ez deusa,
 Ez naiteke ez atrebi
 Ene homayen blhurtzera,
 Haren tronurat beiratzera,
 Ni ez deusa.

Esker onezco Acta.

Çuri, Yauna,
 Bihurtzen dauzkitçut eskerrac
 Çuri, Yauna;

Ceren çuc ene beharrac
 Ditutçun bethi sokhorritu,
 Esker guciac çor çaizkitzu
 Çuri, Yauna.

Ofrimenduzco Acta.

Ez arbuya,
 Yauna, ene bihotz agorra,
 Ez arbuya
 En-eguin ahal aphurra;
 Desiratzen dudan onguia
 Çuretzat nahi dut gucia;
 Ez arbuya.

Galdezco Acta.

Eiçu, Yauna,
 Ene hitz, obra, lan guciac
 Eiçu, Yauna,
 Gogoeta, guthiciac
 Diren çu lorificatzeco
 Eta ene salbamenduco;
 Eiçu Yauna.

YAUNAREN OTHOITZA.

Ceru, lurrac bere hitzaz
 Eguin dituen Yaincoa,
 Eguin da bere emaitzaz
 Gure aita cerucoa;
 Hori da beraz, Yauna;
 Hartu duçun icena
 Gure fagoretan :
 Publica dadila
 Lekhu gucietan
 Aita çaitugula.

Sainduki erabilia
 Biz bethi çure icena,
 Ceruco gorthe gucia
 Bozcariatzen duena;
 Ez gaiten ez mentura
 Banoki aiphaitzera
 Hain icen saindua;
 Bainan içan bedi
 Errespetatua
 Orai eta bethi.

Satan, gure bihotzetan
 Ez duc hiretzat lekhuric;
 Yaunac lekhu gucietan
 Erreguinatu behardic;
 Eguicu, othoi, Yauna,
 Ceruco erresuma
 Ardiex deçagun
 Eternitatean,
 Eta gau et-egun
 Dugun bihotzean.

Dohaxuec ceruetan
 Eguiten duten beçala;
 Desterruzco lekhu huntan
 Bakhoitchac eguin deçala
 Cure borondatea,
 Gucien eguilea
 Çarenaz gueroztic;
 Çer da yustuago
 Gucien gainetic
 Çu seguitcea baino?

Çuc ordenatuz gueroztic
 Lurrari ekhar deçala,
 Ez da baratu sortzetic,
 Guiconarentzat beçala
 Hegastin gucientzat

Eta haciendentzat
 Hekin hazcurria :
 Othoizten çaitugu,
 Behar den gucia
 Bethi emaguçu.

Gu bethi çure aldera
 Çorduru içanen gare;
 Bainan guri barkhatzera
 Bethi ekharria çare;
 Guc gure lagunari,
 Cerbait daucunari
 Eiten badiogu
 Misericordia;
 Barkhatzen diogu,
 Eiguçu gracia.

Campotic eta barnetic
 Exaiez inguratuac,
 Gare ongui eguitetic
 Cerbaitez guibelatuac;
 Çato gure sokhorri;
 Ez othoi, Yauna, sofri
 Ofenxa çaitzagun
 Tentacionetan :
 Çau de gau et-egun
 Çure ingurutan.

APOSTOLUEN SYMBOLA.

Sinhexten dut Yainco aita
 Guciz botherexuan;
 Gucien eguilea da
 Ceruan bai lurrean :

Sinhexte huntan fermuki
 Bici nahi naiz bethi;
 Fede hau galtzen lukena
 Ez baiditeke salba. (*Bis.*)

Sinhexten dut haren seme
 Yesu Christoren baithan;
 Hura da bakharric digne
 Yaunetan deith deçadan;
 Izpiritu sainduac du
 Hura guïçon-moldatu;
 Maria Biryina ganic
 Sorthu da gure gatic. (*Bis.*)

Pilatusen manuari
 Cioen obeditu,
 Eta hambat sofricari
 Hain humilki pairatu;
 Ez çuen arren crimaric,
 Gure hobenen gatic
 Hil cen gurutze batean
 Bi ohoinen artean. (*Bis.*)

Biciaren emaila
 Guretzat hil cenean,
 Haren haragui maitea
 Hobian çuten eman;
 Gorphutzetac berecia
 Arima hain garbia
 Yauxi cen ilhumbetara
 Yustuen arguitzera. (*Bis.*)

Hirurgarren egunean
 Altchatu cen biciric,
 Profetec erran ephean,
 Bera hillen artetic;
 Phiztua da, guehiago
 Seculan ez hiltzeco:
 Bozcaria gaiten beraz
 Haren phizte sainduaz. (*Bis.*)

Cerurat igan içan da
 Salvatore egunean;
 Gueroztic han da yarria

Aitaren escuinean,
 Guri senti arazteco
 Eta irakhaxteco
 Bothere bera dutela
 Eta loria bera. (*Bis.*)

Bera handic egun batez
 Yauxico da lurrera,
 Beztitua mayestateg,
 Gucien yuyatzera;
 Egun ikharagarria!
 Oh! egun latzgarria!
 Egun guïçon yustuena
 Ikharatzen duena. (*Bis.*)

Fede beraz dut sinhexten
 Izpiritu sainduan;
 Hunec guciac arguitzen
 Ez baguintu munduan,
 Bethi errebelatzea
 Laite gure çortea;
 Huni yarraikiren dena
 Dohaxu içanen da. (*Bis.*)

Eliça catholicoan
 Da ene sinhextea;
 Ceren hartaric campoan
 Segur baita galtzea:
 Eliça bakhar bat baicic
 Ez da eguiazcoric,
 Yesu Christoz fundatua,
 Hartaz gobernatua. (*Bis.*)

Eliçaren cimenduac
 Dire guciz sainduac,
 Saindua da ceren baitu
 Yesu Christoc fundatu,
 Eta ceren, hartaz, campo
 Ez baita causituco

Ez saindu eguiazcoric,
Ez cerura bideric. (*Bis.*)

Apostoluen gainean
Çuen Yaunac fincatu;
Bainan, hec hil direnean,
Ez da deus gambiatu;
Hec cituzten indar berac
Ditu orai Eliçac,
Erreguelaturic Yaunac
Nola eguin ordainac. (*Bis.*)

Orotara da hedatzen
Eguiazco Eliça,
Eta bethi du iraunen,
Ez daiteke gueriça;
Menden akhabantzaren
Mundua mundu deino,
Ez du deusec mudaturen
Edo ezeztaturen. (*Bis.*)

Progotchoski sainduekin
Dugu communicatzen;
Hekin othoitz, ongui-eguin,
Ardiexi dituzten
Gracia eta fagore,
Gucietan gu ere
Partalier, nahi bagare,

Gombidatzen gaituzte. (*Bis.*)

Sinhexten dut bekhatuen
Erremisionean,
Ceren Yannac utzi tuen,
Cerurat igaitean,
Haren botherez yauntziac
Ministro bereciac,
Çoinei erran baitzioten:
Nic çaituztet igortzen. (*Bis.*)

Sinhexten dut azkenean
Gorphutz hilcor guciac,
Trompetaz yo duenean,
Erhauxetic biciac
Beharco çaiçcola yaiki
Aintzinerà Yaunari,
Bere obren arabera
Sententzia hartzera. (*Bis.*)

Phiztucc da haraguia
Seculan ez hiltzeco,
Bethiereco bicia
Orduan da hasico,
Edo bethi ifernuan
Tormenten pairatzeco,
Edo bethi descaxuan
Ceruaz goçatzeco. (*Bis.*)

BAKETIARRAREN ETA MENDECARIAREN

ARTEAN IHARDUKIA.

BAKETIARRAC.

Yesu Christoc daucu manatzen
Exaiari barkhatzea,

— 108 —

Eta non ez dugun barkhatzen,
Segur dugu damnatzea.
Haren exai cen guciari
Barkhatzen hasi da bera;
Obedi çogun legueari,
Maithatuz gure exaia. (*Bis.*)

MENDECARIAC.

Manu gogor, legue dorphea!
Ez othe cen bada aski
Ongui eguilen maithatzea?
Certaco du iratchiki
Orobat gaizki eguileac
Behar direla maithatu,
Eta gure cehatzailleac
Ordainez ongui tratatu? (*Bis.*)

BAKETIARRAC.

Oroc gorphutz bat eiten dugu,
Yesu Christo buruçagui,
Ceru bera aguindu çaicu
Hemen elkhar maitha sari :
Manu ezi, legue maitea!
Çuc deraucucu ekharri
Lurrerat ceruco bakea,
Bihotz gucien lotgarri. (*Bis.*)

MENDECARIAC.

Gutien ustean ene exaiac
Niri hambat axecabe,
Eta nic malxoki guciac
Sofri, mendecatu gabe?
Ez dut odol hain pairatua;
Halacoei nic barkhaturic
Ez da dostatuco mundua,
Ez daut eguinen hirriric. (*Bis.*)

BAKETIARRAC.

Phisaçac hau, mendecaria;
Huna cer çayan guerthatzen;
Exaia cehatu nahia,
Hire bihotza duc çaurtzen;
Cer pena, cer nekhe, cer gudu
Ez dituc hire barnean
Ondicoz ardura frogatu,
Herran bici haizenean? (*Bis.*)

MENDECARIAC.

Ez bada cilhegui gaizkiac,
Mendecatuz, bihurtzea,
Halaber nekhe da exaiac
Bihotzetie maithatzea :
Ez dut exaientzat herraric;
Bainan, ez ongui, ez gaizki
Halaco yendekin garabic
Ez dut nahi iharduki. (*Bis.*)

BAKETIARRAC.

Molde horretan barkhatzea
Ez da aski salbatzeco ;
Eguiazco caritatea
Hedatzen da urrunago ;
Gaizkiaren ordain onguia
Bihurtzea du manatzen :
Yaunaren misericordia
Ein ahalaz imitatzen. (*Bis.*)

MENDECARIAC.

Oihuz Aita cerucoari
Gauzco, barkha detzagula
Gure huxac, guc exaiari
Barkhatzen tugun beçala

Mendecariac, othoitz hori
Eguiten duen gucian,
Galdetzen dio Yaincoari
Yaçar deçon ber-aldian. (*Bis.*)

BAKETIARRAC.

Yesusec Aita du othoiztu
Bere Azken orenetan,
Gurutze batean itzatu
Çuten beren fagoretan :
Norc atchic deçake herraric
Exemplu hunen ondoan?
Hitz amulxu hec adituric,
Nola bici exaigoan. (*Bis.*)

MENDECARIAC.

Yesus exemplutzat harturic,
Egun beretic naiz hasten,
Bihotzetic herra khenduric,
Ene exaien maithatzen :
Ofenxatunauten guciac
Maiteki tut besarcatzen,
Eguin dauzkidaten gaizkiac
Behin bethicotz ahantzten. (*Bis.*)

GUCIEC ELKHARREKIN.

Othoitz deçagun Yaungoicoa
Arren gure bihotzetan
Caritate eguiazcoa
Seculacotz finca deçan ;
Hemendic ilkhi beçain sarri,
Sargaiten, balxa handian,
Hemen elkhar maithatze sari
Aguindu çaiçun lorian. (*Bis.*)



LAUDA, SION.

Latinaren airean.

Sion, Salbatzaile ona,
Guidari eta artzaina
Lauda çaçu copletan.

Ez guphidex, ein ahala,
Ceren ezin azki lauda
Baiditeke seculan.

Laudorio, gucz egun, daigun
Bicia emaiten daucun
Ogui biciarentzat.

Hauche baitcen, azken afarian
Hamabi haurridei eman
Eguiazki yaterat.

Lauda deçagun haltoki,
Aguer dadin publicoki
Gure bozcarioa.

Egun hunekin, lehen aldicotz
Mahain hau hedatu celacotz
Daigu memoria.

Legue berrico Bazcoa,
Khenduric lehenecoa,
Mahain hortan eguin cen.

Çaharra du berriac,
Itzala du eguiac,
Arguiac gaua khentzen.

Yaunac utzi du ordena,
Berac obratu çuena
Aphezec ein deçaten.

Haren ganic ikhasia,
Arnoa eta oguia
Ditugu consecratzen.

Oguia da gorphutzerat,
Bai arnoa odolerat
Eguiazki aldatzen.

Ikhus, asma ez daitena,
Gauça mirextecoena
Fedecac du fincatzen.

Itchuru beren azpian,
Eguiten da sustantzian
Aldamen guczicoa.

Mudantza eguin denean,
Edo cein itchuren-pean
Yainco bat da osoa.

Hartzailleac ez du hauxten,
Ez çathitzen, ez chehatzen;
Osoric du irexten.

Batec har, ala har millec,
Bat hartzen dute guciec,
Ez da nihoiz ez-deusten.

Gaichtaguinac hartzen badu,
Onac beçambat hartzen du,
Bainan bere caltetan.

Herioa du causitzen
Yustuentzat bicia den
Ithurburu berean.

Hostia hauxiric ere,
Ez dudaric ein batere
Hambat dela çathi hartan
Nola baita osoan.

Ez da deusic erdizcatzen,
Seinale choila da hauxten,
Sustantzia da guelditzen
Cer ere baitcen lehen.

Aingueruen oguia da
Eguin bideranten bazca,

Eguiaz haurren oguia,
Ez oren yanharia.

Aguertu ciren figurac;
Hetaric ciren Isaac,
Bildoaz bazcoz yaten cena,
Eta ceruco mana.

Yesus, artzain on, gure ogui,
Çuz gaitutçun urricari;
Çain gaitzatçu eta bazca,
Çure onthasunez goça
Gaiten ceruan bethi.

Guciz çuhur, botherexu,
Çuc hemen hazten gaitutçu;
Hanere mahain berean,
Çure sainduen artean
Othoi eçar gaitzatçu.

IFERNUAZ.

Aire çaharrean.

GALDEA.

Creatura damnatua,
Cerc hauen tormentatzen,
Cer den hire ifernua,
Hire penac cer diren
Erraguc, erraguc;
Arguitu nahi gaituc.

IHARDEXTEA.

Ecín erran dirot hitzez
Cembat dudan sofritzen;

Ene dolore borthitzez
Hasten banintz mintzatzen,
Flacoac, flacoac
Litezke terminoac.

GALDEA.

Ez badeçakec esplica
Cembat duan pairatzen,
Sentitzen duan beçala
Erdizcache bederen
Erraguc, erraguc;
Aguitu nahi gaituc.

IHARDEXTEA.

Ene çorigaitzac ez du
 Helas! bertze neuriric
 Yainco guciz botherexu
 Baten colera baicic;
 Bethicotz dohaxu
 Içan nintekelatic.

GALDEA.

Hire pena certan datza,
 Cerc darozkie cilhatzen
 Arima eta gorputza?
 Has hadi esplicatzen :
 Erraguc, erraguc;
 Arguitu nahi gaituc.

IHARDEXTEA.

Gorputzac eta arimac
 Dithu bethi erretzen
 Su miracuilluzcoenac,
 Bainan ez conxumitzen :
 Sua dugu hemen
 Yaten eta edaten.

GALDEA.

Su latzgarri horren kharrac
 Cembat iraun behar du?
 Element horren indarrac
 Noiz behardu yabaldü?
 Erraguc, erraguc;
 Arguitu nahi gaituc.

IHARDEXTEA.

Ez diro deusec iraungui

Behin phiztu denean;
 Iraun beharco du bethi,
 Bethi indar berean,
 Yaunaren colerac
 Buhatzen duen suac.

GALDEA.

Cer lekhu den ifernua,
 Cer duan hor ikhusten,
 Nortaz haizen lagundua,
 Norc duen hor manatzen
 Erraguc, erraguc;
 Arguitu nahi gaituc.

IHARDEXTEA.

Ifernua da lece bat,
 Satanen erresuma;
 Yaunac aurthiki du hunat
 Gaiz gucien bilduma;
 Monstro beltzie baicen
 Ez da hemen ikhusten.

GALDEA.

Hire pena gucietan
 Cein da latzgarriena,
 Guehienic hire baithan
 Afliyitzen hauena?
 Erraguc, erraguc;
 Arguitu nahi gaituc.

IHARDEXTEA.

Orhoitzean ene faltaz
 Gabetua naizela
 Bethicotz ene Yaincoaz,
 Errabian beçala

Dolorez, chagrinez
Yartzen naiz, haren minez.

GALDEA.

Certaco haiz hi orhoitzen
Galdu duan Yaincoaz?
Cergatic ez duc exitzen
Haren amodioaz?
Erraguc, erraguc;
Arguitu nahi gaituc.

IHARDEXTEA.

Higuintzera bortchatua -
Naizen Yaincoa gana
Ez dakit cerc, hertchatua,
Instant oroz narama,
Bethi bereganic
Khasatzen nauelaric.

GALDEA.

Nola duan merecitu
Yaincoaren colera,
Ceren gatic condenatu
Hauen supliciora
Erraguc, erraguc;
Arguitu nahi gaituc.

IHARDEXTEA.

Dela madaricatua
Sorthu nintcén eguna,
Eta lehen bekhatua
Eguin ican nuena :
Crima hare ondicoz
Galdu nau seculacotz.

GALDEA.

Bekhatu mortal bakhar bat
Aski bada galtzeco,
Millaca ein tuztenentzat
Cer pena othe dago?
Erraguc, erraguc;
Aaguitu nahi gaituc.

IHARDEXTEA.

Gaztiguen hedadura
Gaichtoec, lece huntan,
Bere crimen eredura
Beharco tuzte yasan
Fin gabeco penac,
Ez ordean bardinac.

IHARDEXTEA.

Bekhatu mortalarekin
Yuntatua denean,
Hux benial batec berdin
Içanen du lecean
Pena eternala,
Hux mortalac beçala.

IHARDEXTEA.

Barkhatuac ican diren
Bekhatu beren pena,
Demboran complitu ez den
Penitentzia hura
Ez daite seculan
Akhaba ifernuan.

IHARDEXTEA.

Demboran hain urricari

Ditugu guicon flacoac
Yustu beçain miragarri
Aguertzen den Yaincoac ;

Ordean, ordean
Ez eternitatean.

AINGUERUEZ ETA HEKIEN GANIC HELDU

ÇAIZKIGUN FAGORE BERECEZ.

Aingueru tropac
Cituen creatu
Yaungoico onac,
Eta destinatu
Gure guidatzeco,
Eta beiratzeco
Ceruraco bidean,
Exaien artean,
Aingueru tropac.

Loth yustuari
Betan bi aingueru
Hain dohaxuki
Citzaizcon aguertu,
Escutic harturic,
Sodomaco sutic,
Salboan eçartzerat,
Eta guidatzerat,
Loth yustuari.

Yacob sainduac
Ein cituenean
Lehen pausuac,
Berritan bidean
Cituen causitu
Eta eçagutu
Aingueru guidariac,
Bidera yauxiac,
Yacob sainduac.

Labe gorian
Eçarri cituzten
Haurren erdian
Ikhusi içan cen
Yauxia laberat,
Haurren beiratzerat,
Yaunaren ainguerua,
Apartatuz sua
Labe gorian.

Lehoin goseac
Cituzten ikhusi
Hain herabeac,
Ez nahiz ausiki
Daniel yustua,
Ceren ainguerua
Harekin baitcen yauxi,
Eta malxaraci
Lehoin goseac.

Arcanyelu bat
Ama Biryinaren
Salutatzerat
Cerutic yauxi cen,
Emanic berria
Mundurats mesia
Ceraucula ekhartzen,
Sinhesten baçuen
Arcanyelu bat.

Yoseph yustua
 Aingueru on batez
 Abisatua
 Nola cen Herodes
 Coleran handian,
 Gauaren erdian
 Ama semez cargatu,
 Eta cen partitu
 Yoseph yustua.

Yesu Christori
 Hiltzeco menean,
 Cenean yarri
 Baratze batean
 Odolez icerdi,
 Citcaion ethorri.
 Cerutic aingueru bat,
 Curaie emaiterat
 Yesu-Christori.

Presondeguitic,
 Gathez cargatua
 Çagoen lekhitic
 Arthoski çaindua
 Aingueru batec-du
 Piarres libratu,
 Haren gathec hauxi,
 Eta ilkhi-araci
 Presondeguitic.

Edo cein orduz,
 Ixas, leihorretan,
 Ecin gaihenduz
 Irriscu handitan,
 Loxatzetic urrun,
 Bozic segui çagun
 Yaunaren ainguerua
 Gure sustengua
 Edo cein orduz.

Satan gaichtoa
 Oldartzen baçaicu,
 Bihotz flacoa
 Beharrez garhaitu,
 Bethi har detzagun
 Aingueruac lagun;
 Holaco lagunekin
 Laster da deseguin
 Satan gaichtoa.

Mundu sothilla,
 Gu beretu nahiz,
 Aguer dadilla
 Content eta hirriz;
 Gure beiratzerat
 Aingueru tropa bat
 Da cerutic yauxico,
 Eta bentzutuco
 Mundu sothilla.

Bethi gurekin
 Badago yosia
 Liphizta cikhin
 Arimen exaia;
 Haren asalduac
 Gure aingueruac
 Alfer ditu bihurtzen,
 Eta gducatzen
 Bethi gurekin.

Ceruan erre,
 Bethi aingueruac
 Gure fagore
 Dire altchatuac;
 Othoitzac, amoinac
 Eta obra onac
 Ez dire ofreitzen
 Haukin ezcuz baicen
 Ceruan ere.

— 117 —

Esker handiac
Çor ç aizco Yaunari,
Haren graciac
Baiditu eçarri
Aingueruac beilan

Gure ingurutan ;
Halaber aintzindari
Eman daucunari
Esker handiac.



AURKHITEGUIA.

		PLAMA
Cantica Izpiritualac		1
Abisua		5
Amanda onorablea		7
I Cantica. Izpiritu Sainduaren laguntzac gal-		
detzeco		9
II — Laguntza beren galdea		10
III — Yaincoaren legue saindua		11
IV — Munduaren arbuioaz		12
V — Munduco gaucen ezdeustasunaz ..		13
VI — Inocentzian denaren coriona		14
VII — Bathaioco gradiaren gainean		15
VIII — Yaincoa ganat itzultzen da bekha-		
torea		16
IX — Yaincoaren hamar manamenduac		18
X — Elicaren manamenduac		20
XI — Yaincoaren eta lagunaren alderaco		
amodioa		21
XII — Lau azken finen gainean		22
XIII — Gauça beraz		23
XIV — Gauça beraz		24
XV — Heriotzearen orhoitzapenaz		26
XVI — Gurutzearen bistan bekhatorearen		
sentimenduac		27
XVII — Nola behar gaizcon Yesusi yarraiki		28
XVIII — Contzientziaren examina		29
XIX — Bekhatuaren urrikiaz		30
XX — Yaincoac deithzen du bekhatorea		
bere gana		31
XXI — Bekhatorea itzultzen da Yaincoa		
gana		32
XXII — Bekhatorea nahi da conbertitu ..		33
XXIII — Bekhatorea conbertitzen da,		34

PLAMA

XXIV	Cantica.	Yesusen amodioaz eta ikhusminez sustatua den bihotzaren haxgo- rapenac.....	35
XXV	—	Bekhatorearen bozcarioa Yaincoa ganat bihurtzean.....	36
XXVI	—	Creaturen conxideracionea gure bihotzac Yaincoa ganat altchat- zeco ...	37
XXVII	—	Eskerren bihurtzeco	38
XXVIII	—	Aldareco sacramendu sainduaren gainean.....	39
XXIX	—	Meçaco sacrificioaren gainean ..	40
XXX	—	Sacramendu sainduaren ohoretan.	42
XXXI	—	Yaun handia adoratzeco....	43
XXXII	—	Sacramendu sainduaren adorat- zeco.....	43
XXXIII	—	Sacramendu sainduaren benedi- cionea emaitan	44
XXXIV	—	Comunione sainduraco amodiozco deihac.....	44
XXXV	—	Comunionearen ondoko santa The- resaren bozcariozco eskerrac..	46
XXXVI	—	Purgatorioaz.....	48
XXXVII	—	Yesusen bihotz samurrari othoitza	49
XXXVIII	—	Yesusen bihotz sacratuaren oho- retan.....	50
XXXIX	—	Yesusen bihotz sacratuaren alde- raco sentimenduac.....	51
XL	—	Bihotzeco garbitasunaz.....	53
XLI	—	Medisentziaz	54
XLII	—	Misione edo erretretetaco dembo- ran	55
Predicuetaco Ave Maria.....			56
Arrosarioco hamabortz misterioac.....			57
NOELAC.	I	Noela.....	60
	II	Noela ..	61
	III	Noela.....	62
	IV	Noela.....	62



	PLAMA.
V Noela.....	63
VI Noela.....	64
VII Noela.....	66
VIII Noela.....	67
IX Noela.....	68
X Noela.....	69
XI Noela.....	70
XII Noela.....	72
Vexilla Regis. escuaraz.....	73
XIII. — Yesusen phiztearen gainean.....	75
Forti tegente brachio escuaraz.....	74
Munduari adios.....	76
Predicu aitzinean.....	78
Predicu ondoan.....	79
Hamalau estacionetaco gurutze sainduari hamabortz pherxu.....	79
Munduco gaucen funxgabetasuna.....	81
Andredena Magdalena eta mundutarraren arteco solhasa	83
Bathaioco abantailac eta aguintzac.....	84
Comunioneco actac.....	86
Gazte-danic prestu icaitearen gainean.....	87
Yuiamendu yeneralaz.....	91
Bekhatorearen çortheaz.....	94
Hil behar naiz eta yuiatua ican.....	95
Damnatuen auhenac ifernuan.....	97
Dohaxuen ceruco goçoaz.....	99
Munduco lanyerac.....	101
Bekhatorea itzultzen da Yaincoa ganat.....	102
Berthute printzipalen actac.....	103
Yaunaren othoitza.....	104
Apostoluen symbola.....	105
Baketiarraren eta mendecariaren artean ihardukia....	107
Lauda, Sion, escuaraz.....	111
Ifernuaz bigarren cantica.....	112
Aingueruez eta hekien ganic heldu çaizkigun fagore berecie.....	115







